

HAUR HEZKUNTZAKO HELBURU OROKORRAK.

Irakaskuntza-ikaskuntza prozesu guztia gidatu behar duten helmuga eta asmoak formulatzen dituzte. Hezkuntzaren helburua gaitasunak garatzea denez, egokia iruditzen zaigu helburu orokor bakoitza aipatzerakoan, hurrek garatu behar dituzten bost gaitasunak kontutan hartzea, konkretuki helburu orokor bakoitzarekin zer gaitasun garatzen den aipatuz. Hau da: motrizitatezkoa, ezagupenezkoa, pertsonarekiko erlaziozkoa, afektiboa eta gizarteratzekoa.

Haur Hezkuntzak hurrei ondoko gaitasun hauek lortzen lagundu behar die:

1. Bakoitzak bere gorputzaren oinarriko funtzionamendua ezagutu eta ulertzea, beren buruaz eta baita beren nortasun sexualaz ere, irudi positiboa eratzea. Beren ekintza eta espresibiderako gaitasun eta mugak baloratzea eta osasun eta ongizaterako oinarriko ohiturak ikastea. Motrizitatezkoa, afektiboa eta ezagupenezkoa.
2. Ohizko jardueratan gero eta autonomia handiagoz jokatzeko. Horrela, pixkanaka ziurtasun afektibo eta emozionala lortzea, ekimenerako gaitasunak eta norberarengan konfiantza garatzea. Afektiboa.
3. Gizarte harremanak gero eta eremu zabalago batean ezartzea. Besteen iritziak entzuten hastea eta norberaren interesa, ikuspegi eta aportazioak, besteenei egokitzen ikastea. Gizarteratzekoa.
4. Helduekin eta lagunekin harremanezko loturak ezartzea, elkarren arteko adostasuna erakutsiz, aniztasuna errespetatuz eta laguntza eta elkarlanerako jarrerak landuz. Gizarteratzekoa.
5. Ingurunea jakin-minez eta arduraz behatu eta aztertzea, bertako elementuen ezaugarriak antzemanen eta beraien arteko erlazio batzuk identifikatuz. Ezagupenezkoa eta gizarteratzekoa.
6. Ingurunekeo zenbait kultura adierazpen ezagutzea, beraiekiko errespetu interes eta partaidetza jarrerak landuz. Gizarteratzekoa eta ezagupenezkoa.
7. Errealitatekeo zenbait alderdi, bizitakoak, ezagututakoak edo iruditutakoak, adieraztea eta antzeztea, espresio bide batzuek eskaintzen dituzten posibilitate sinbolikoez baliatuz. Pertsonarekiko erlaziozkoa
8. Aho hizkuntza ohizko komunikazio egoeretara egokituz erabiltzea, besteekiko elkar-ulermena gerta dadin, ideiak, sentimenduak, esperientziak eta nahiak adierazteko, esanahiak eraikitzen jarraitzeko, beren jokabidea erregulatu eta besteengan ere eragina izateko. Pertsonarekiko erlaziozkoa.
9. Beren eskura dauden baliabideekin adierazpena aberastu eta ugaritzea. Beren adinarekin bat datozen adierazpen artistikoak ezagutu eta beraietaz jabetzea. Pertsonarekiko erlaziozkoa eta ezagupenezkoa.

Haur Hezkuntzarako zehaztu ditugun helburu hauek etapa honen zentzua markatzen dute, haurren prozesuarekin bat datoz eta ingurunearekin duten elkarrekintzen emaitza dira. Elkarrekintza hauek beharrezkoak dira haurren garapenerako.

HAUR HEZKUNTZAKO ESPERIENTZIEN LEHEN EREMUA:
1. NORBERAREN IDENTITATEA ETA AUTONOMIA.

1. HELBURU OROKORRAK

| LEHEN ZIKLOA (0 - 3) : | BIGARREN ZIKLOA (3 - 6) : |
|--|--|
| 1.-Bere gorputzaren ezaugarriak ezagutu, bere irudia, besteak ez bezalako pertsona dela jabetuz. | 1.- Bere buruaren irudi egoki eta positibo bat eduki, bere ezaugarri eta nolakotasun pertsonalak antzemanaz. |
| 2.-Bere oinarrizko beharrak (fisiologikoak, mugimenezkoak, afektiboak...) antzeman eta pixkanaka-pixkanaka haien arabera jokatu. | 2.-Pixkanaka nork bere ahalmenak eta mugak ezagutu, egoki baloratu eta beraien arabera jokatu. |
| 3.-Beste pertsona batzuen ezaugarri eta nolakotasunak pixkanaka-pixkanaka antzeman eta baloratzen hasi. | 3.-Beste pertsonen ezaugarri eta nolakotasunekiko, errespetuzko jarrera izan eta sexuari nahiz beste edozein ezaugarri bereizgarri dagozkion bazterkeriazko jarrerarik gabe baloratzen hasi. |
| 4.-Norberaren eguneroko bizitzan burutuko dituen jardueretarako egokiak diren ahalmen motriz, zentzumenezko eta adierazpenezkoak aurkitu eta aztertu. | 4.- Norberaren eguneroko bizitzan burutuko dituen jardueretarako egokiak diren ahalmen motriz, zentzumenezko eta adierazpenezkoak antzeman eta erabili. |
| 5.- Eguneroko bizitzako zereginak betetzeko eta jolaserako, eta halaber sentimenduak eta emozioak adierazteko ere, gorputzaren koordinazioa eta kontrola pixkanaka-pixkanaka eskuratu. | 5.-Eguneroko bizitzako zereginak betetzeko eta jolaserako, eta halaber sentimenduak eta emozioak adierazteko ere, gorputzaren koordinazioa eta kontrol dinamikoa eskuratu. |
| 6.-Ekintza ludikoetan objektuak aztertzeo eta eguneroko bizitzan tresnak erabiltzeko behar den begi-eskuen koordinazioari hasiera eman. | 6.-Eguneroko bizitzan eta adierazpen grafikoarekin zerikusia duten zereginetan beharrezkoa den begi-eskuen koordinazioa aplikatu, objektuak gero eta zehaztaper handiagoz erabiltzeko eta aztertzeo. |
| 7.-Pixkanaka-pixkanaka bere eta besteen emozio eta sentimenduak antzeman keinuen eta gorputzaren bidez | 7.-Norberaren sentimenduak, emozioak eta beharrak antzeman eta besteei adierazi; besteenak antzeman eta errespetatu. |
| 8.-Eguneroko bizitzarekin zerikusia duten lan errazak konpondu, behar den laguntza eskatuz eta frustrazio txikiak onartuz. | 8.-Objektuekin ekin eta egoerei aurre egin, norberaren ekintzak planifikatuz, eguneroko bizitzako arazoak konpontzeko zailtasunak gainditzeko jarrera erakutsi, besteengandik behar duen laguntza bilatuz. |
| 9.-Bere jokabidea besteen arabera egokitzen joan, baita arreta jarri, antolatuz eta laguntzeko ohitura batzuk hasi ere. | 9.-Norberaren jokabidea beste haurren eta helduen beharretara, eskarrietara eta adierazpenetara egokitu, eta besteen jokabidean eragina izan menpekotasun edo |

| | |
|--|---|
| | nagusitasun jarrerak baztertuz eta laguntza eta elkarlan jarrerak eta ohiturak landuz. |
| 10.-Elikadura, atsedena eta bere ongizate pertsonalarekin zerikusia duten ohitura eta jarrerak areagotu. | 10.-Ongizate eta segurtasun pertsonala, higiene eta osasuna sendotzearekin zerikusia duten ohitura eta jarrerak pixkanaka eskuratu. |

1. EREMUKO EDUKIN MULTZOAK

1.1.- GORPUTZA ETA NORBERAREN NORTASUNA.

EDUKINAK

| LEHEN ZIKLOA (0 - 3) : | BIGARREN ZIKLOA (3 - 6) : |
|--|--|
| <u>Jarrerak:</u> | |
| <p>1.-Norbere identitatearen ahalmen eta mugen balorapen positiboa.</p> <p>2.- Eskura dituen zeregin eta jokabideak burutzeko gaitasun eta ahalmen pertsonalean pixkanaka konfiantza izatea.</p> <p>3.-Pertsona helduen eta lagunena maitasun erakuspenen aurrean balorapen eta jarrera positiboa.</p> <p>4.- Oinarrizko beharren asetzeak ematen duen gozamenaren balorazioa eta behar hauek berehala ez asetzeak zenbaitetan onartzen hastea.</p> | <p>1.- Norbere identitatearen ahalmen eta mugen balorapen positiboa.</p> <p>2.- Eskura dituen zeregin eta jokabideak burutzeko gaitasun eta ahalmen pertsonalean pixkanaka konfiantza izatea.</p> <p>3.-Pertsona helduen eta lagunena maitasun erakuspenen aurrean balorapen eta jarrera positiboa.</p> <p>4.- Besteen desberdintasun eta ezaugarriak onartzea, diskriminazioak saihestuz.</p> <p>5.- Oinarrizko beharrak berehala edo beranduago asetzen direnean sentitzen diren gozameneko edo ez-gozameneko sententzioen balorazioa.</p> |
| <u>Prozedurak :</u> | |
| <p>1.- Norberaren eta besteen gorputza aztertu eta identifikatzen hastea, nahiz globalki nahiz zatika.</p> <p>2.-Gorputzaren eta kanpoko errealitatearen azterketan zentzuak erabiltzea, eta sentitzen diren sententzio eta pertzepzioak antzematea.</p> <p>3.- Eguneroko egoera arruntetan oinarrizko beharrak agertu eta erregulatzen hastea.</p> <p>4.- Sentimendu, emozio, bizipen, lehentasun, interes, etab. en adierazpena eta pixkanaka erregulatzen hastea.</p> | <p>1.- Gorputzaren ezaugarri eta nolakotasunen azterketa eta identifikazioa, nahiz globalki, nahiz atalka,, baita besteekin duten alde eta antzera ere.</p> <p>2.-Gorputzaren eta kanpoko errealitatearen azterketan zentzuak erabiltzea, eta sentitzen diren sententzio eta pertzepzioak antzematea.</p> <p>3.- Eguneroko egoeretan eta noizbehinkakoetan oinarrizko beharrak, adierazpen erregulazio eta kontrola.</p> <p>4.- Sentimendu, emozio, bizipen, lehentasun, interes, etab. en adierazpena eta pixkanakako erregulazioa.</p> <p>5.-Berezko aldaketa fisikoez eta denbora</p> |

| | |
|--|---|
| 5.- Norbera eta besteen arteko bereizketaz ohartzea. | igarotzearekin duten erlazioaz jabetzea. |
| | 6.- Norbera eta besteen arteko bereizketaz ohartzea |
| <u>Kontzeptuak:</u> | |
| 1.- Giza gorputza: -- Gorputz atalak Giza gorputzaren irudia. | -- Gorputzaren ezaugarri diferentzialak. -- |
| 2.- Gorputzaren sentazio eta pertzepzioak : beharrak, erlaziozko oinarritzko Beharrak. -- Exterozeptiboak : zentzumen eta mugimenduzko errezeptoreen bidez kanpotik sumatutako emozio eta sentimenduak. | -- Interozeptiboak: giza gorputzaren oinarritzko |
| 3.- Norberaren eta besteen emozio eta sentimenduak. | |

1.2.-JOLASA ETA MUGIMENDUA

EDUKINAK

| LEHEN ZIKLOA (0 - 3) : | BIGARREN ZIKLOA (3 - 6) : |
|---|---|
| <u>Jarrerak:</u> | |
| 1.- Jarduera fisikoa atsegin izatea eta bere mugimenezko ahalmenetan konfiantza izatea. 2.- Autoestima egokia lortzeko, helduaren laguntzaz norberaren posibilitate motrizitateen konfiantza gero eta handiagoa izatea. 3.- Ekintzetan eta trebetasun berriak ikasteko ekimena. 4.- Jolas fisikoarekiko interesa eta oinarritzko arau batzuetara pixkanaka-pixkanaka egokitzea. 5.- Gorputz jolasetan ezarritako arauak onartzen hastea. | 1.- Jarduera fisikoa eta arrisku kontrolatua atsegin izatea eta bere mugimenezko ahalmenetan konfiantza izatea. 2.- Autoestima egokia lortzeko gaintitze jarrera izatea, norberaren posibilitate motrizetan konfiantza izanik. 3.- Ekintzetan eta trebetasun berriak ikasteko ekimena. 4.- Ariketa fisikoarekiko zaletasuna. Ariketa hauek arautzen dituzten erregelak onartzea eta oinarritzko arau batzuei lotzea. 5.- Gorputz jolasetan ezarritako arauen onarpena. |
| <u>Prozedurak :</u> | |
| 1.- Jolasetan eta eguneroko egoeretan gorputzaren ahalmen eta muga motrizen ikerketa. 2.- Objektu, pertsona, ekintza eta egoeraren ezaugarrietara egokitzeko tonu eta jarreraren kontrolean hastea. 3.- Mugimenduen koordinazio eta kontrol orokorra eskatzen dituzten jardueratan pixkanaka trebetasun motriz berriak eskuratzea, jolas egoeretan eta eguneroko bizitzan. | 1.- Jolasetan eta eguneroko egoeretan gorputzaren ahalmen eta muga motrizen ikerketa. 2.- Objektu, pertsona, ekintza eta egoeraren ezaugarrietara egokitzeko tonu eta jarreraren kontrol aktiboa erabiltzea. 3.- Mugimenduen koordinazio eta kontrola, nahiz orokorra nahiz atalkakoa, behar dituzten jardueretan pixkanaka trebetasun motriz berriak eskuratzea, jolas egoeretan eta eguneroko bizitzan. |

| | |
|---|---|
| 4.- Lehen nozio topologiko eta erritmikoen finkapena errazten duten mugimenduak erabiltzea. | 4.- Lehen nozio topologiko, erritmiko eta denborazkoen finkapena errazten duten mugimendua erabiltzea. |
| 5.- Benetako espazioan joan- etorriak egitea eta bere burua kokatzea objektuei begira. | 5.- Benetako espazioan joan-etorriak egitea eta bere burua kokatzea objektuei eta beraien artean duten erlazioari begira. |
| 6.- Jolas sensomotore libre eta zenbait jolas tradizioaletan parte hartzea. | 6.- Jolas sensomotore libre edo arautu eta jolas tradizioaletan parte hartzea. |

Kontzeptuak :

1.- Giza gorputza eta mugimendua: -- Irudi orokorra. Atalak eta elementuak. Artikulazioak. Lateralitatea. -- Orientazioa espazioan eta denboran.
 2.- Oinarrizko trebetasun motrizak eta koordinazioak: -- Ibilera, lasterketa, jauzia, jaurtiketa. -- Koordinazio estatikoa, dinamikoa eta ikusmen-motrizitatezkoa. 3.- Mugimenezko joko herrikoi eta tradizionalak.

1.3 AUTONOMIA EGUNEROKO BIZITZAN

EDUKINAK

| LEHEN ZIKLOA (0 - 3): | BIGARREN ZIKLOA (3 - 6) : |
|--|--|
| <u>Jarrerak:</u> | |
| 1.- Ekimena eta autonomia jokoetan eta eguneroko bizitzaren arazo txikiak konpontzerakoan. | 1.- Ekimena eta autonomia jokoetan eta eguneroko bizitzaren arazo txikiak konpontzerakoan. |
| 2.- Norberaren ahalbide eta mugen onarpena zereginak burutzerakoan. | 2.- Laguntza, kolaborazio eta lankidetzaz jarrera, norberaren interesak besteenekin koordinatuz. 3.- Norberaren eta besteen ahalbideen eta mugen onartzea zereginak betetzerakoan. |
| 3.- Egindako lana baloratzea eta hobetzeko proposamenak onartzea. | 4.- Lan berbererako konponbide ezberdinak aurkitzeko interesa eta bere lagunen erantzun desberdinen balorazioa. 5.- Ongi egindako lanaren balorapena, hutsegiteen onarpena eta bere ekintzak hobetzeko zuzenketak onartzea. |
| <u>Prozedurak :</u> | |
| 1.- Jolasetan eta eguneroko bizitzaren egoeretan portaera arautzen hasia. | 1.- Jolasetan eta eguneroko bizitzaren egoeretan portaera arautzen joatea. |
| 2.- Helduaren laguntzaz, ekintza errazak planifikatzea eta ondorioak ikustea. | 2.- Ekintza errazak planifikatzea eta ondorioak ikustea. |
| 3.- Beste pertsonetikiko lankidetzan eta laguntzan hasia, behar duen laguntza konfiantzaz eskatuz. | 3.- Beste pertsonetikiko koordinazioa, lankidetzaz eta laguntza, behar duen laguntza konfiantzaz eskatuz. |
| 4.- Beste ume batzuen eta, batez ere, helduaren eskabide eta azalpenen arabera | 4.-Gehienetan portaera arautzea besteen eskabide eta azalpenen arabera. |

| | |
|---|--|
| bere portaera arautzen hasia. 5.-Oinarrizko ohituretan helduaren laguntzaz hasia. | 5.- Oinarrizko ohiturak izatea : antolaketa, egonkortasuna, arreta, ekimena eta ahalegina. |
| <u>Kontzeptuak :</u> | |
| 1.- Autonomia pertsonalaren trebetasunak . garbitasun pertsonala, janaria, jantziak, joan-etorriak, zeregin errazak burutzea eta tresnak erabiltzea. 2.- Elkarrekintza trebetasuna : elkarbizitzarako arauak, talde jardueretan parte hartzea, indibidualitate eta harreman modu ezberdinekiko errespetua, autobaieztapena eta emozioen adierazpena. | |

1.4 : OSASUNA ETA ONGIZATEA

EDUKINAK

| | |
|---|--|
| LEHEN ZIKLOA (0 - 3) : | BIGARREN ZIKLOA (3 - 6) : |
| <u>Jarrerak:</u> | |
| 1.- Garbi egotea eta jarduerak inguru garbi eta txukunetan burutzea atsegina izatea. | 1.- Itxura pertsonal zaindua eta jarduerak inguru garbi eta txukunetan burutzea atsegina nahi izatea. |
| 2.- Higiene, gaixotasun egoeretan eta istripu txikiengan, senide eta heldu hurbilen laguntza eta babesa bilatzeko interesa. | 2.- Gaixotasun eta istripu txikiengan pertsona helduek hartzen dituzten neurrien aurrean lasaitasun eta kolaborazio jarrera. |
| 3.- Helduaren laguntzaz, osasunarentzat komeni edo kaltegarriak diren zenbait praktika baloratzen hasia. | 3.- Osasunarentzat onak edo txarrak diren praktiken balorapena eta positiboki jokatzeko jarrera. |
| <u>Prozedurak :</u> | |
| 1.- Gorputz higiearen zenbait ohitura elementalak autonomoki egiten hasia. | 1.- Gorputz higiearen ohitura elementalak autonomoki burutzea. |
| 2.- Eguneroko jarduerak egiten diren ingurunea garbia izaten laguntzea. | 2.- Eguneroko jarduerak egiten diren inguruaren garbitasuna gordetzen laguntzea. |
| 3.- Elikadura, atsedena eta esfinterren kontrolarekin zerikusia duten ohiturak hartzen hasia. | 3.- Loaldi, atsedena, elikadura eta esfinterren kontrolaren erritmoak erregulatzea. |
| 4.- Arrisku egoerak antzematen hasia. | 4.- Arrisku egoerak antzematea. 5.- Tresna eta instalazioak modu egokian erabiltzea. |
| <u>Kontzeptuak :</u> | |
| 1.- Norberaren osasuna eta zaintza: -- Ongizate pertsonalari dagokion garbitasuna. -- Janariak eta elikadura ohiturak. -- Loia, jarduerak eta atsedena ohiturak. -- Gaixotasuna, mina, osasunari laguntzen dioten ekintzak. | |
| 2.- Inguruaren zaintza eta ongizate pertsonala. | |

3.- EBALUAKETARAKO ERIZPIDEAK.

| LEHEN ZIKLOA (0 - 3) : | BIGARREN ZIKLOA (3 - 6) : |
|--|--|
| <p>1.- Bere gorputz irudia globalki ezagutzea. - Besteenetik bereiztea. - Bere gorputz-atalak identifikatu eta seinalatzea. - Bere ahalmen, behar eta mugak ezagutzen eta egoki baloratzen hasia. - Eguneroko jolas eta ekintzetan mugimenduak koordinatzen hasia.</p> <p>2.- Inguruneko pertsonen zenbait ezaugarri eta nolakotasun ezagutzen eta errespetatzen hasia.</p> <p>3.- Lan errazak egitea eta aurkeztu zaizkion arazo txikiak konpontzen hasia, helduaren laguntzarekin behar balitz. - Besteen behar eta eskabideetaz konturatzen hasia, laguntzeko eta lankidetzan aritzeko lehen pausoak emanez.</p> <p>4.- Eguneroko bizitzaren zenbait objektu eta tresna manipulatu eta erabiltzea, eskuaren mugimenduak ikusmenarekin koordinatzen hasiz.</p> <p>5.- Osasun, ongizate, elikadura, atsedena eta garbitasun pertsonalerako ohiturak erakustea, helduaren laguntzarekin.</p> | <p>1.- Bere gorputz irudia globalki ezagutzea. - Gorputza ezagutzea: atalak, ezaugarri eta nolakotasunak. - Bere ahalmen, behar eta mugak ezagutu eta egoki baloratzea. - Bere gorputza koordinatu eta kontrolatzea, nahiz mugimenduan, nahiz atsedenean.</p> <p>2.- Egoera desberdinetan besteen ezaugarriak errespetatzea. -Pertsonen arteko antz eta aldeak identifikatu, deskribatu eta onartzea.</p> <p>3.- Bere kabuz baliatzea, lanen konponketa eta plangintzan bere ekimena garatuz. - Bere ekimena besteenarekin koordinatzea eta talde-lanetan parte hartzea.</p> <p>4.- Tresna eta objektuak erabili eta maneiatzea, behar den begi-esku koordinazioarekin.</p> <p>5.- Osasun, ongizate, elikadura, garbitasun eta atsedena ohiturak erakustea, baita egoera arriskutsuak ezagutu eta saihestea.</p> |

HAUR HEZKUNTZAKO ESPERIENTZIEN BIGARREN EREMUA

2. INGURUNE FISIKO ETA SOZIALA

1.)HELBURU OROKORRAK.

| LEHEN ZIKLOA (0 - 3): | BIGARREN ZIKLOA (3 - 6) : |
|---|---|
| 1.- Bere eguneroko bizitza garatzen den gizarte-taldeetan interesezko jarrerekin parte hartu. | 1.- Jardueretan zehar haurra harremanetan egongo den taldeetan parte hartu, pixkanaka besteak kontuan hartuz. |
| 2.- Bere gizarte- taldeko funtsezko arauak ezagutzen joan, harreman pertsonaletako loturak izateko, nahiz helduekin, nahiz umeekin. | 2.- Bere baitan hartzen duten taldeen arauak eta jokabide soziala ezagutu, harreman pertsonaletan lotura malguak eta orekatuak ezarri, besteekiko harremanetan aniztasuna antzemateko. |
| 3.- Ohizko espazioetan ibili eta gero eta autonomia handiagorekin erabili eta denboraren lehen bizipenak izan eguneroko ekintzei begira. | 3.- Eguneroko espazioetan autonomoki orientatu eta jokatu, eta, bere noizbehinkako eta ohiko bizipenei dagokienez, denbora eta espazioaren antolaketari dagozkion oinarrizko terminoak egoki erabili. |
| 4.- Ingurunea behatu eta aktiboki aztertu, ezaugarriak antzemanaz eta esanahi bat emanaz pertsona heldu baten laguntzarekin. | 4.- Bere ingurune fisiko eta gizarte-ingurunea behatu eta aztertu, jasotako eta hautemandako informazioaren arabera ekintzak planifikatuz eta ordenatuz, bere eraginak ikusiz eta bere jokabidea eta beronen ondorioen arteko erlazioa ezarriz. |
| 5.- Gizarte-mailan antolatzen diren jardueretako batzuk, ingurunean sarritan ematen direnak, behatu eta ezagutzen joan. | 5.- Giza bizitzaren antolaketa modurik arruntenak ezagutu, beren baliagarritasuna baloratu eta pixkanaka horietako batean parte hartuz. |
| 6.- Inguru naturalaren elementuak baloratzea eta haiekiko interesa adierazi. | 6.- Inguru naturala eta giza bizitzarentzat bere kalitateak duen garrantzia baloratu, bereganako errespetu eta ardura jarrerak erakutsiz, eta ahal duen neurrian esku hartuz. |
| 7.- | 7.- Inguru fisikoaren ezaugarriak eta inguru horretan dauden bizitza formen artean erlazio batzuk ezarri. |
| 8.- Euskal Herriko eta inguru gertuko joko, jai eta beste kultur adierazpenetan parte hartu, jakin-min eta gozamenean oinarritutako jarrerekin. | 8.- Euskal Herriko eta inguru gertuko festa, tradizio eta ohiturak ezagutu eta bertan parte hartu, kultur adierazpen gisa baloratu. |
| 9.- Ingurunean gertatzen diren begien bistako aldaketez jabetu. | 9.- Inguruaren elementuak dituzten aldaketak behatu; horietan eragina duten faktore batzuk ezagutu. |
| 10.- Inguru fisiko eta sozialarekiko interesa | 10.- Inguru fisiko eta sozialarekiko interesa eta |

| | |
|--|--|
| eta jakin-mina erakutsi, bertan ematen diren gertaera garrantzitsuenei buruzko galderak eta interpretazioak eginez, bat-batekotasuna eta originaltasuna garatuz. | jakin-mina erakutsi, bertan ematen diren gertaera garrantzitsuenei buruzko galderak eta interpretazioak eginez, bat-batekotasuna eta originaltasuna garatuz. |
|--|--|

2.) EREMUKO EDUKIN MULTZOAK

2.1.- FAMILIA ETA ESKOLA INGURUA.

EDUKINAK.

| LEHEN ZIKLOA (0 - 3) : | BIGARREN ZIKLOA (3 - 6) : |
|---|--|
| <u>Jarrerak:</u> | |
| <p>1.- Objektu eta espazioak zaintzen hastea.</p> <p>2.- Norberaren eskubide eta iritziak defendatzen hastea : eguneroko elkarbizitzan gertatzen diren arazoetan eskaintzen zaizkien konponbideak onartu eta erabiltzen hastea.</p> <p>3.- Famili eta eskola inguruan elkarbizitzarako oinarritzko arauak errespetatu eta hauenganako interesa.</p> <p>4.- Gelako objektuak elkarrekin banatzeko prest egoten hastea.</p> <p>5.- Objektu eta materialaren azterketa eta manipulazioarekiko jakin-mina eta interesa.</p> | <p>1.- Famili eta eskola inguruaren ezaugarriak ezagutu bertan dauden espazio eta objektuak errespetatu eta zainduz.</p> <p>2.- Norberaren eskubide eta iritzien defentsa, eta besteenak errespetatzea gatazka egoeren konponbidean autonomia lortuz.</p> <p>3.- Famili eta eskola inguruan elkarbizitzarako oinarritzko arauak errespetatu eta hauenganako interesa.</p> <p>4.- Espazioak, jostailuak, objektuak eta esperientziak elkarbanatzeko jarrera positiboa.</p> <p>5.- Eskola eta famili inguruko kideen sexu, rol, ezaugarri pertsonal eta abarren aniztasunarekiko errespetua.</p> <p>6.- Objektu eta materialaren azterketa eta manipulazioarekiko jakin-mina eta interesa.</p> |
| <u>Prozedurak :</u> | |
| 1.- Objektuak zentzu eta ekimenen bidez aztertzea. | 1. Objektuak ekintza eta zentzuen bidez aztertzea eta ondorioak ikustea. |
| 2.- Ikasgelako materiala konpartitzeko dela onartzea. | 2. Ikasgelako materiala konpartitzea. |
| 3.- Etxean eta eskolako objektu bilketak laguntzarekin egitea. | 3. Objektuen behaketa eta sailkapena beren ezaugarri eta erabilpen eta eguneroko bizitzan duten kokapenaren arabera. |
| 4.- Eguneroko ekintzetan objektu eta tresna errazak erabiltzea. | 4. Besteekiko lankidetzeta eta kolaborazioa eragiten duten objektuen erabilpen egokia. |
| 5.- Irudien bitartez, famili eta eskola inguruko ohizko objektu, pertsona eta | 5. Famili eta eskolako inguruan bizi izan diren esperientzi eta gertaeren oroitzapena. |

| | |
|--|--|
| ekintzen identifikazioa. | |
| 6.- Famili eta eskola inguruko elementuekiko sumatzen diren sentrazio eta emozioak antzematea. | 6.-Famili eta eskola inguruko elementuekiko sumatzen diren sentrazio eta emozioak antzematea. |
| 7.- Normalean erabiltzen dituen espazio eta eskolako egoitzetan autonomoki mugitzea Eta eguneroko ekintza eta errituen bitartez eskaintzen zaion ordutegietaz jabetzea. | 7.-Eguneroko jardueretan pixkanaka autonomoki jokatzea. |
| 8.- Eguneroko elkarbizitzan jokaera egokiak eta desegokiak bereiztea.. | 8.- Famili eta eskola inguruko eguneroko jardueren prestaketa eta garapenean partaidetza eta kolaborazioa egokiak eta desegokiak diren jokabideak bereiztuz. |
| <u>Kontzeptuak :</u> | |
| 1.- Familia eta eskola: | |
| -- Kideak, funtzioak eta zereginak. Kideen arteko. Kideen arteko harremanak: ahaidetasuna, adiskidetasuna,... | |
| -- Norberaren lekua familian eta eskolan | |
| -- Elkarbizitzarako oinarritzko arauak | |
| 2.-Etxebizitza eta eskola eraikuntza: | |
| -- Barne eta kanpoko ezaugarriak.Egoitzak: erabilpen eta funtzioak. Bertan ematen diren jarduera motak. | |
| -- Segurtasun neurriak, osasuna eta higiena habitat horietan. | |
| 3.- Eguneroko jarduerari dagokien denbora. | |

2.2.- INGURUA ETA GIZARTE BIZITZA

EDUKINAK

| | |
|---------------------------------|------------------------------------|
| LEHEN ZIKLOA (0 - 3) : | BIGARREN ZIKLOA (3 - 6) : |
|---------------------------------|------------------------------------|

| <u>Jarrerak :</u> | |
|--|---|
| <p>1. Ingurune garbiak baloratzea eta kontserbazioaz arduratzeko interesa.</p> <p>2. Inguruan dauden istripu arriskuaren faktoreen balorapena.</p> <p>3. Komunitatearen hizkuntzak, ohiturak, folklorea eta beste kultur adierazpenekiko arreta eta jakin-mina.</p> <p>4. Gizarte ingurunearen osagai eta ekintza esanguratsuak ezagutzeko jakin-mina.</p> <p>5.- Elkarbizitzako oinarrizko araei kasu egitea.</p> | <p>1. Ingurune garbiak baloratzea eta kontserbazioaz arduratzeko interesa.</p> <p>2. Inguruan dauden istripu arriskuaren faktoreen balorapen egokia.</p> <p>3. Komunitatearen hizkuntzak, ohiturak, folklorea eta beste kultur adierazpenekiko oniritzia, errespetua eta interesa.</p> <p>4. Inguru sozialeko sexu, lanbide, ezaugarri pertsonal desberdinekiko errespetua eta jarrera ez diskriminatzailea.</p> <p>5. Elkarbizitzako oinarrizko arauen balorapena eta errespetua.</p> |
| <u>Prozedurak :</u> | |
| <p>1. Ingurune hurbileko espazio eta objektuen garbiketa eta kontserbazioan laguntzarekin parte hartzea.</p> <p>2. Inguruan egokiak eta desegokiak diren jokabideetaz konturatzea.</p> <p>3. Elkarbizitzarako beharrezkoak diren araeuz konturatzea.</p> <p>4. Ohiko egoeretan bat-bateko jokaerak erabiltzea.</p> <p>5. Herriko jai eta ospakizun batzuetan parte hartzea.</p> <p>6. Ingurune hurbileko elementu, egoera eta gertaeren behaketa eta azterketa.</p> <p>7. Beste inguru urrunago batzuetako elementu, egoera eta gertaeren zeharkako behaketa eta azterketa.</p> <p>8. Denbora, gertakari atmosferikoak eta pertsonen ekintzen eraginez inguruko elementuen aldaketa nabarien arreta.</p> <p>9.- Inguru soziokulturalean bizi izandako esperientzien sententzio eta emozioak antzematea eta gogoan edukitzea.</p> | <p>1. Ingurune hurbileko espazio eta objektuen garbiketa eta kontserbazioan parte hartzea.</p> <p>2. Inguruan egokiak eta desegokiak diren jokabideak bereiztea.</p> <p>3. Elkarbizitzarako beharrezkoak diren arauak sortu eta erabiltzea.</p> <p>4. Ohiko egoeretan bat-bateko jokaerak erabiltzea.</p> <p>5. Herriko kultur adierazpen nagusietan aktiboki parte hartzea.</p> <p>6. Gertaera sozial batzuk denborarekin lotzea.</p> <p>7. Etxebizitzako eta eskolako ingurune hurbileko espazioetan orientatzea eta bertan autonomoki moldatzea.</p> <p>8. Ingurune hurbileko elementu, egoera eta gertaeren behaketa eta azterketa.</p> <p>9. Beste inguru urrunago batzuetako elementu, egoera eta gertaeren zeharkako behaketa eta azterketa.</p> <p>10. Denbora, gertakari atmosferikoak eta pertsonen ekintzen eraginez inguruko elementuen aldaketa nabarien azterketa, egutegiaren bidez.</p> <p>11.-Inguru soziokulturalean bizi izandako esperientzien sententzio eta emozioak antzematea eta gogoan edukitzea.</p> |

| <u>Kontzeptuak:</u> |
|---|
| <p>1.- Intxaurrondo eta Donostiako gune batzuk. Ezaugarriak, espazio, elementuak eta beraiek betetzen dituzten funtzioak.</p> <p>2.- Bizitoki motak: hirikoa, itsasaldekkoa eta mendikoa. Elementuak, espazioak eta funtzioak.</p> <p>3.- Fenomeno atmosferikoak. Paisai natural desberdinak.</p> |

- 4.- Lanbideen ezaugarriak eta funtzioak. Produktu batzuen elaborazio prozesua
- 5.- Komunitate zerbitzuen ezaugarriak eta funtzioak
- 6.- Zirkulazioaren oinarritzko arauak.
- 7.- Herriko ohitura, folklore eta beste kultur adierazpenak
- 8.- Komunikabideak. Aisia eta gertaera sozialetarako balioa
- 9.- Denbora: astearen egunak, jai egunak, lan egunak,...

2.3 INGURU NATURALA.

EDUKINAK.

| | |
|---------------------------------|------------------------------------|
| LEHEN ZIKLOA (0 - 3) : | BIGARREN ZIKLOA (3 - 6) : |
| <u>Jarrerak:</u> | |

| | |
|--|---|
| <p>1.- Inguru naturala aztertu eta ezagutzeko jakin-mina eta interesa.</p> <p>2.- Izaki bizidunen ezaugarri eta funtzioak ezagutzeko interesa.</p> <p>3.- Naturan burutzen diren iharduerak atsegina izatea.</p> <p>4.-Natur baliabideen zainketa.</p> | <p>1.- Inguru naturaleko elementuekiko jakin-mina, errespetua eta ardura (ingurunearen kontserbazioan parte hartzea, animalia eta landareei kalterik ez egitea,...).</p> <p>2.- Izaki bizidunen ezaugarri eta funtzioak ezagutzeko interesa.</p> <p>3.- Naturan burutzen diren iharduerak atsegina izatea.</p> <p>4.- Naturak ematen dizkigun baliabideak baloratzea eta neurri egokian erabiltzeko jarrera positiboa izatea.</p> |
|--|---|

Prozedurak :

| | |
|---|---|
